

Lucia Gorbeña

Gatazkei irtenbidea bilatzeko tailerretan hezitzailea:

«Etxe barruko gatazkei irtenbidea emanda kaleko gatazkak egoki konpondu daitezke»

Hernaniko Udalak tailerrak antolatu ditu seme-alabak eskola adinean dituzten gurasoentzat, Unibertsitateko GEUZ taldearekin batera. Helburua da familia barruko gatazkei irtenbidea bilatzea. Lucia Gorbeña talde honetako hezitzailea da eta tailerren nondik-norakoak azaldu ditu.

NOIZTIK ari zarete horrelako proiektuetan, non dago tailer hauen jatorria?

SEI urte inguru daramazkigu lanean, baina Hernanin lau urte badira hainbat ikastetxeekin hasi ginela. Udaletxeak lagunduta berriz bi urte daramazkigu, Eusko Jaur-laritzaren *Bakerako Heziketa* programaren bidez.

«Gurasoak etxean dituzten arazoak konpondu nahian etortzen dira: goizean ikastolarako orduan izaten diren liskarrak, etxera bueltatzeko ordutegian sortzen direnak...»

Beraz, jadanik badago jende multzo bat tailer hauetan parte hartu duena...

Bai, 50 lagun inguruk jadanik formazioa jaso dute. Orain eskola esparrutik komunitate esparrura pasatu gara eta edozein gurasok parte hartu dezake, berdin dio zein ikastetxetan dituen seme-alabak.



Lucia Gorbeña GEUZ-eko kidea da eta formatzaile lanetan ari da tailerretan.

Bi tailer mota daude, oinarrizkoa eta aurreratua. Zertan ezberdintzen dira?

Oinarrizkoan gatazkak konpontzeko estrategia familiarrak lantzen ditugu: komunikazioa, emozioak mane-jatzea, inplikazioa, negoziaketa seme-alabekin... Aurreratuan berriz gehiago sakontzen saiatzen gara eta aurretik formazioa jaso dutenei zuzendurik dago tailer hau. Bertan lantzen da, esate baterako, bi seme-alaben arteko bitartekaritzak nola egin eta familia bilerak diseinatzen dira, elkarriketa gauzatzeko.

Tailerrean parte hartzen duten gurasoek zein duda dituzte? Zer bilatzen dute bertan?

Etxean dituzten arazoak konpondu nahian etortzen dira: ikastolara joateko garaian seme-alabekin dituzten liska-

rak, etxera bueltatzeko ordutegi arazoak... Baina gero konturatzen dira, etxe barruko gatazkei irtenbidea emanda, kaleko gatazkei modu egokian aurre egiteko gai izaten direla seme-alabak. ||

Oraindik plazak libre geratzen dira tailerretan

TAILER batzuk jadanik martxan dauden arren gehienak urtarrilean hasiko dira eta plazak badaude oraindik bertan apuntatu nahi duenarentzat. Euskarazko eta erdarazko tailerrek dira, bai basikoan eta baita aurreratuan ere. Tailer bakoitzak 16 orduko iraupena du, bi orduko zortzi saiotan banaturik eta astean egun batean izango da saioa. Izena emateko Hernaniko Udaleko telefono zenbaki hauetara deitu daiteke: 943 335021 eta 943 551808. ||

❖ PLENDA

Udal Aurrekontuak eztabaidatuko dira gaur

Gaur pleno garrantzitsua izango da Udaletxean 09:30etan, aurrekontuak eztabaidatuko baitira. Aurrekontuak dira: Udalak 24.519.336 euro; Ongintzak 5.772.842 eta Kirol patronatuak 2.310.559 euro. ||

❖ ERREGE KABALGATA

Kabalgata antolatzen bilera

Errege Kabalgatako Komisiok bilera du bihar 20:00etan Biterin kabalgata antolatzen eta dei egin die herriko haur, gazte eta bizilagun guztiei bertan parte hartzeko. ||

❖ BERTSOLATA

Kalean bertsoan

Gaur kalean bertsoan izango dira Iraulio Pantalone Hernaniko Bertso Eskolak kideak. 19:30etan hasiko dira Gudarrien plazatik eta hainbat dendatan saioa egingo dute. Santo Tomas eguna izaki, txistorra izango da protagonista. 20:00ak inguruan Tripontzin izango dira azken saioa egiten. Taberna honek atarian txistorra parrila bat jarriko du eta baita barrikote bat ere, gainera trikitilariak izango dira giroa alaitzeko. ||

❖ SANTO TOMAS

Zaharren Egoitza

Zaharren Egoitzan txistorrada izango dute, Gabonetako egitarau barruan, 17:00etan. ||

Inmaculadan azoka

Inmaculada ikastetxean Santo Tomas azoka antolatu dute gaur, 10:30etatik 12:00etara. ||

Jubilatu Etxean

11:00etan udazkeneko karta jokoetako trofeo banaketa izango da Jubilatu Etxean eta ondoren txistorrada. ||

ORDAINDU EROSKETAK BERRIAK TXARTELAREKIN
BERRIAK txartelarekin ordaintzen duzun erosketak guztietan

%5eko deskontua izango duzu

BERRIAK txartela erabili dezakezun establezimenduetan

Promozioa abenduaren 1etik 31ra

HERNANI HIZKUNTZAK
(Gure Ingelesetxea)

Lehen hiru hilabeteko azken klase eguna, abenduak 23, ostirala. Berritua, klaseen hasiera, urtarrilak 9, astelehena.

ZORIONAK eta urte berri on!

MATRIKULA ZABALIK

Deitu Alan/Joe: 943 33 11 08
KALE NAGUSIA 41, 1.

Hernaniko emakumeen historiari buruzko liburua

Edozeinentzako opari polita...

Lete liburu dendan salgai.

AHOTSAK
EMAKUMEAK HISTORIAN
HERNANI (1936 - 1970)
U.BARRUTABENGOA N.ELIAS
G.GONZALEZ A.RODRIGUEZ

☎ TELEFONDAK 1 Taxiak: 943 550093 1 Udaltzaingoa: 943 333288 1 DYA: 943 464622
1 Autobusak: 943 556662 1 Anbulatorioa: 943 006666 1 Jokalari anonimoak: 943 331103
1 Alkoholiko anonimoak: 943 331103 + FARMAZIAK 1 Egunez: Chucla Kardaberaz 48 - 943 551793
1 Gauez: Chucla Kardaberaz 48 - 943 551793

EGURALDIA **GAUR** Aurreko egunen tankeran jarraituko du eguraldiak. Goizean larbroa izango da eta gero eguzkia nagusituko da egun guztian. Hotza egingo du eta temperatura minimoa 0°C azpikoa izango da berriro.

BIHAR Antizikloiak gurekin jarraituko du eta goizean izotza eta larbroa izango dira protagonista. Eguzkiak izango da biharkoa eta tenperaturak zertxobait egingo du gora.

(euskalmet)

Udaletxean eta Kiroldegian eguzki plakak jarriko dituzte

Udaletxean plaka fotoboltaikoak jarriko dituzte eta kiroldegian plaka termikoak. Gaur, plenoan eztabaidatuko da hitzarmena.

UDALETXEKO teiltuan, eguzki plaka fotoboltaikoak jartzekoak dituzte argi indarra lortzeko eta Kiroldegiko teiltuan eguzki plaka termikoak ur beroa lortzeko. Hala azaldu zuen atzo Iñaki Arratibel Ingu-rugiro zinegotziak Udaletxeko teiltuan bertan. Energiaren Euskal Erakundea ari da administrazioetan eguzki plakak jartzea bultzatzen eta Hernaniko kasuan inbertsioa berak egingo du seguruenera. Inbertsioa berak eginda berak kudeatuko luke hor ateratako energia eta 8 urtetara udalak erosi ahal izango lizkioke plakak. Udaletxe eta Kiroldegiko instalazio bakoitza 36.000 euro inguru kosta liteke, hori oraindik zehazteko badago ere, eta instalazioek 25 urte inguruko bizitza izango dute. Hitzarmena gaurko plenoan eztabaidatuko da. ||



Arratibel Udaletxeko teiltuan.

Plakak

Udaletxean fotoboltaikoak.

Energia lortzeko balio dute eta Iberdrolari saltzen zaio.

Kiroldegian termikoak.

Ur beroa lortzeko balio dute eta kiroldegian bertan erabiliko da ur bero hori.

36.000 euro inguru kosta liteke instalazio bakoitza.

25 urteko bizia dute plakek gutxi gora behera.

Gaurko plenoan eztabaidatuko dute Energiaren Euskal Erakundearekin egin beharreko hitzarmena.



Peña Otaño museko txapelkun. Elkartea arteko mus txapelketa jokatu da eta Peña Otaño Luis eta Juanek irabazi dute. Bigarren, Karobiko Mikel eta Jose gelditu dira; hirugarren, Elizatxoko Julian eta Niko; laugarren, Peña Otaño Eugenio eta Angel; bosgarren, Txantxangorri; seigarren, Zaharren Egoitza; zazpigarren, Gure Txoko; eta zortzigarren, Elizatxo. Etxeberriko elkartearen jokatu da aurreko txapelketa eta primerako giroa izan zuten joan den larunbateko sari banaketan. ||

ATLETISMOA

Ixiar Urdangarin Gipuzkoako txapelkun

IGANDEAN, Azpeitiako kro-sean 6 hernaniarrek hartu zuten parte eta Ixiar Urdangarin lehena iritsi zen bere kategorian, senior proban. Horrela Gipuzkoako txapelkun izan da berriro ere atleta hernaniarra Goierri-Garaia taldearekin. Urdangarin 25:17 egin zuen Azpeitian.

Eider Aldabe txapelkun 800 metrotan

Anoetako Belodromoan 17 urtez azpiko atleta onenen arteko txapelketa izan zen larunbatean eta bertan Eider Aldabe Gipuzkoako txapelkun izan zen 800 metrotan. Maitane Iruretagoienak bigarren egin zuen 60 metrotan. ||

PERU

Perura bidaltzeko jostailu bilteta gaur

Kardaberaz kaleko 43 zenbakian jostailuak biltzen ari zuten gaur Perura bidaltzeko. ||

RENFE

Donostiako Santo Tomas feriara joateko tren zerbitzuak indartuko ditu Renfek

Prentsa ohar batean Renfek jakinarazi du gaurko tren zerbitzuak indartuko dituela Santo Tomas dela-eta: goizean Donostiara joateko eta eguerdian hiriburutik etortzeko. ||

ARRANTZA

Ilargi itsas-arrantza taldea Gipuzkoako erregulartasun ligan ondo

Ilargi itsas-arrantza taldeak bukatu du Itsaso-Kosta jaurtiketa modalitatean Gipuzkoako erregulartasun liga. Bertan 200 bat parte hartzaile izan dira eta horietatik 40-50 inguruk puntuatu dute. Puntuatu dutenen artean 25 eta 35 postuetan geratu dira talde honetako kideak. Modu honetan arrantza taldeak aurtengo denboraldiari amaiera eman dio eta babesle duten Bar Ilargiri eskerrak eman dizkiote bertako arduradunek. ||

IRAGARKI MERKEAK

Kotxea salgai. Peugeot 206. 115.000 km ditu eta 1999koa da. **Prezioa 4000 €.** Interesatuak deitu: 618 816 960

25 urteko **Administraria lan bila.** Deitu: 660 580 862

Urrezko katea galdu nuen, larunbatean, Hernaniko kaxkoan. Familiako errekerduoa da. Norbaitek aurkitu badu, deitu: 943 552767

Arotz profesionalak lan txikiak egingo lituzke. Deitu: 656 78 64 15

Ilargi Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Sta Barbara 42).

Etxe bat salgai Gudarien plazan. 50 m2 ditu. Interesatuak deitu: 679 10 75 06 (Arratsaldeko 13:30etatik 15:30etara)

BALANTXA

dvd 24 ordu - prentsa - liburuak - opariak - txutxeak

ANTZIOLA 7

☎ 943 55 35 58

